

2021EKO OTSAILAREN 25EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bost

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bat

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta hamar

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak eta Aitziber Yurrebaso Irazustabarrena itzulpen lanak egiten.

1.- AURREKO AKTA. 2021-01-28koa

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) andreak, 2020-12-22an bi akta egitearen arrazoiari buruz egindako galderari erantzunez, idazkari andreak esan du aktek islatzen dutela gai ezberdinei buruz erabakiak hartzeko jarraitu zen ordena eta prozedura aldetik oso zuzena ez izatea aktarekin jarraitzea eskaera eta galderen ondoren, bilerak puntu horrekin amaitzen direnean. Horren ondorioz, alkatea izendatzearekiko eta aurreko alkateak zinegotzi karguari uko egitearekiko beste akta batetan jaso da, kontuan izanda baita ere alkatea izendatzeko zinegotziak, inolako kargu berezirik gabe jardun zutela.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) andreak, aurreko alkatearen errenuntzia formala aurkeztu zuen galderari erantzunez, idazkari andreak esan du, karguei uko egiteko, aurreko alkateak formalki (sinatuta eta erregistro sarrera izanda) bi idatzi aurkeztu zituela, bata alkate karguari uko eginez eta bestea zinegotzi karguari. Ezagutzera eman du Hauteskunde Batzorde Zentralak idatzi horiek aurkeztuta izatea eskatzen duela zinegotzi berriaren alde kredentziala emateko. 2020-12-22an egindako plenoa baino lehen, kredentzial hori Beasaingo udaletxera iritsi zen eta zinegotzi kargua hartu behar zuenak bateraezintasun eta ondasunen aitortpenak aurkeztu zituen.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) andreak, aurreko plenoan aurkeztutako mozioa bertan behera uzteko eta ez tratatzeko prozedurari buruz egindako galderari erantzunez, idazkariak esan du legean ondorengo aurreikusita dagoela: *Edozein zinegotzik eskatu ahal izango du, eztabaidan zehar, gai-zerrendako espedienteren bat kentzeko, dokumentu edo txostenak gai-zerrendan sar daitezen, bai eta espedientea mahai gainean gera dadin ere, eta hurrengo bilerarako atzeratuko da eztabaida* ".

Eskaerak ez du gaiari buruzko eztabaida geldiarazten, eztabaidak aurrera jarraituko baitu. Baina gaiaren funtsari buruzko bozketa egin aurretik, eskaera hori bozkatuko da. Gehiengorik ez badago, gaiaren funtsa bozkatuko da. Gehiengo soila badago, ezin izango da erabaki-proposamena bozkatu, eta gaia mahai gainean geratuko da. Eztabaida hurrengo saiorako atzeratuko da."

Idazkariak esan du, horrez gain, lehendakariak ofizioz gai-zerrendatik gai bat erretiratu dezakeela, *onarpenak gehiengo berezia eskatzen duenean eta gehiengo hori ezin denean lortu gai-zerrendan hasieran aurreikusitako unean.*

Moziaren kasuan ez da ez lehenengo baldintza ematen eta ezta ere bigarrenkoa. Aurreikusi gabe dago eta aurreikusteko instrumentua, udal araudi organikoan izango litzateke.

Aurreko aktaren onespena bozkatu da eta aho batez onartu da.

2.- ALKATEAREN PROPOSAMENA: Konpromisuzko kredituen eranskinaren aldaketa. 2021EKBO0013

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- Euskara zerbitzuak euskara indartzeko eta kirolean euskara sustatzeko zerbitzuak 2 urterako kontratatzeari hasiera ematea aurreikusi du.

2.- 2021eko aurrekontuak 0230.227.335.30.04 eta 0230.227.335.30.07 partidetan beharrezko kreditua aurreikusten du, baina hasierako aurrekontuarekin batera onartutako Konpromiso Kredituen Eranskinean ez dago 2022 ekitaldirako aurreikuspen hori.

Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA

Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:

2.022 urtea:

0230.227.335.30.04: 70.000,00 €

0230.227.335.30.07: 12.000,00 €

Bigarren.- 15 egun jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da eta GAOean argitaratuko da behin-betiko onespeneraren iragarkia.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzia hauek eman dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), esan du ez dutela baloratu behar zerbitzuen hauek orain arte onartutako konpromisuzko kredituetan aurreikusita ez egotea, baina proposamenarekin ados daudela horrek suposatzen duelako kontratatuko den enpresak zerbitzua ematean jarraipena izatea eta ez kontratistaz aldatzen ibili beharra izatea. Jarraipen hori ona dela adierazi du eta horren ondorioz proposamenarekiko botoa aldekoa izango dela.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) esan du abstenitu egingo direla, gaia ez dutelako behar bezala aztertu pentsatuz ez zela bozkatu behar eta bakarrik kontu ematea zela alkatearen proposamena delako.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

3.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOA. EGUNERAKETA 2020-12-31KO DATAREKIKO. 2021EKBO0012

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena:

“2.020ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa onartzea proposatzen dio Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari:

UDALA / AYUNTAMIENTO	Kostu historiko Coste histórico	Amortizazio Amortizac.	Neto kontablea/ Neto contable
ONDASUN HIGIEZINAK / BIENES INMUEBLES	68.344.660,95 €	26.604.091,38 €	41.740.569,57 €
ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES	21.186.655,89 €	7.367.307,63 €	13.819.348,26 €
TERRENOAK / TERRENOS	10.727.913,40 €		10.727.913,40 €
JOLASTOKIAK / PARQUES	3.401.398,95 €	1.964.904,26 €	1.436.494,69 €
BIALAK / VIALES	28.600.540,93 €	15.073.673,65 €	13.526.867,28 €
LANDA FINKAK / FINCAS RUSTICAS	32.628,27 €		32.628,27 €
AZPIEGITURA / INFRAESTRUCTURA	4.395.523,51 €	2.198.205,84 €	2.197.317,67 €
ERRENTA ESKUBIDEAK / DERECHOS REALES	1.251.408,23 €		1.251.408,23 €
BALORE MOBILIARIOAK / VALORES MOBILIARIOS	11.609.809,22 €		11.609.809,22 €
IBILGAILUAK / VEHICULOS	205.879,54 €	174.182,54 €	31.697,00 €
MOBLERIA / MOBILIARIO	3.572.502,87 €	2.809.838,08 €	762.664,79 €

ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR. / CONC. ADMINIS.	1.093.027,00 €		1.093.027,00 €
GUZTIRA / TOTAL	86.077.287,81 €	29.588.112,00 €	56.489.175,81 €
ERAIKIN. ERABIL LAGAPENEAN / INMUEB. CEDIDOS	5.627.305,57 €		5.627.305,57 €
	91.704.593,38 €	29.588.112,00 €	62.116.481,38 €

Altak: eraikuntzetan (136.266,02 €) eta terrenoetan (9.933,71 €).

Bajak: jolastokietan (135.900,20 €)

Altak eta bajak: altzariak (53.317,96 €).

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

b.- EIOGZ. CAFek aurkeztutako zergarekiko hobari-eskaera ebaztea. 2021IDBO0003

Antolakunza batzordeko proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2020ko abenduaren 14ko idazkiaren bidez, CONSTRUCCIÓN Y AUXILIAR DE FERROCARRILES (CAF) S.A.k ondorengo eskatu zuen: "Q eraikina birgaitzeko" obra udal-interes edo erabilera berezikotzat jo dadila, eta, ondorioz, EIOZen hobaria izan dezala; izan ere, Porterian CAFen bulegoak askatzea ahalbidetzen du, eta eraitsi ondoren, lurzoru publiko bihurtuko da eta erabiliko da errekaren ibilgua zabaltzeko eta Porteria ingurua berrurbanizatzeko."

2.- Urtarrilaren 25eko datarekin Idazkariak ondorengo txostena igorri du:

“AURREKARIAK

“Egindako eskaeraren ondorioz, honako **TXOSTEN** hau ematen da, ondorengo eskema jarraituz:

1.- Hobarien lege-erregulazioa.

2.- Udal-araudia.

3.- Planteatutako eskaerari araudi hori aplikatzea.

4.- Jurisprudentzia-erreferentziak.

5.- Ondorioak

1.- HOBARIEN LEGEZKO ERREGULAZIOA.

Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 9. artikulua honela dio:

«No podrán reconocerse otros beneficios fiscales en los tributos locales que los expresamente previstos en las normas con rango de Ley o los derivados de la aplicación de los Tratados Internacionales».

Zerga-onurak arautzeko lege-erreserbaren printzipioaren errepikapena da, Konstituzioaren 133.3 artikuluan ezarritakoa. Haren edukia eta irismena Konstituzio Auzitegiak ere aztertu du.

EIOZ eremuan, Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 100 artikulua nahitaezko izaera duten zenbait salbuespen-kasu ezartzen ditu, eta zerga-onura horiekin batera, Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 103 artikulua onartzen du udalek zerga-ordenantzetan hautazko onurak aplikatzeko aukera baina Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren eta Tributuen Lege Orokorraren lege-aurreikuspenei dagokienez ezartzen ditu (Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 91. eta 12.2. artikulua).

Beraz, Toki-korporazioak EIOZren onura bat eman ahal izango du, baldin eta Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 103,2 artikuluan aurreikusitako hobaria bada eta Ordenantza fiskalean ere aurreikusita dago.

Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 103.2 artikuluan aurreikusten dira Ordenantza Fiskalean aplikatu daitezkeenak:

“Las ordenanzas fiscales podrán regular las siguientes bonificaciones sobre la cuota del impuesto:

a) Una bonificación de hasta el 95 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

b) Una bonificación de hasta el 95 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.

La bonificación prevista en este párrafo se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, la bonificación a que se refiere el párrafo a) anterior.

c) Una bonificación de hasta el 50 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras vinculadas a los planes de fomento de las inversiones privadas en infraestructuras.

La bonificación prevista en este párrafo se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren los párrafos a) y b) anteriores.

d) Una bonificación de hasta el 50 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras referentes a las viviendas de protección oficial.

La bonificación prevista en este párrafo se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren los párrafos anteriores.

e) Una bonificación de hasta el 90 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados.

La bonificación prevista en este párrafo se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren los párrafos anteriores.

La regulación de los restantes aspectos sustantivos y formales de las bonificaciones a que se refiere este apartado se establecerá en la ordenanza fiscal. Entre otras materias, la ordenanza fiscal determinará si todas o algunas de las citadas bonificaciones son o no aplicables simultáneamente.”

Transkribatutako xedapenetik honako ezaugarri hauek ondorioztatzen dira:

1.- Aukerako hoberia da, hau da, Udalbatzarentzat borondatezkoa, eta ordenantza fiskalak jaso ahal izango du edo ez.

2.- Hoberiaren gehieneko zenbatekoa % 95 da, eta ordenantza fiskalak ehuneko txikiagoa arautu ahal izango du.

3.- Hoberia jaso dezaketen eraikuntza, instalazio edo obretan, adierazpen hori justifikatzen duten inguruabar sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua sustatzekoak egon behar dira, eta espedientean inguruabar zehatzak egiaztatu beharko dira.

4.- Ordenantza fiskalean hoberia aurreikusten bada ere, Udalbatzaren Osoko Bilkurak berariaz adierazi behar du eraikuntza, instalazio edo obren udal-interes edo -onura berezia.

5.- Interesdunak eskatu behar du hoberia emateko.

6.- Osoko bilkurak eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikotzat edo udal-erabilgarritasunekatotzat jotzeko, nahikoa da gehiengo soilaren erabakia.

Hala ere, Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 103,2 artikulutik ondorioztatzen denaren arabera, ezaugarri horiek "eraikuntzan, instalazioan edo obran" eman behar dira eta ez subjektu pasiboan.

2.- UDAL ARAUDIA

Ikus dezagun orain Beasaingo ordenantza fiskalak eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergari buruz dioena:

HOBARIAK

- a) %95era bitarteko hoberia, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestu berrien eraikuntza barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hoberiaren ehuneko Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Udalarentzat interes berezikotzat izendatzea, hoberi honetaz gozatu ahal izateko:

1.- Berriak ez diren eta halako elementurik ez duten higiezinetan igogailuak, arrapalak, plataforma jasotzaileak eta antzeko elementuak jartzea. Ez zaie izendapen hori ematen etxebizitzaren barruan elementu horiek instalatzeko obrei. Hoberia: % 95.

2.- Udalarekin batera, kultura eta kirol jarduerak burutzen dituzten udal elkarteek, bere jarduerara aurrera eramateko dituzten lokaletan, egiten dituzten obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzea (2012-04-26 ko Udalbatzaren erabakia):

- Bakarrik, kultura eta kirol jarduerak burutzeko lokaletan egindako obrak: %95. –

- *Kultura eta kirol jarduerak bakarrik burutzen ez diren lokaletan egindako obrak: %45.*

-

3.- 2006-12-29 Aginduaren eta ondorengo aldaketetan (ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO 2013-2016 ALDIRAKO RENOVE PLANA) araututako laguntzak (dirulaguntza edota mailegua) jaso dituzten obra edo jardunak. Hobaria: %95.

4.- Aisirako gazteen lokaletan egiten dituzten obrak. Hobaria: %95.

5.- Ondorengo hezkuntza zentroek egiten dituzten obrak: *Beasaingo Institutua BIP, Seazka Haurrekola, Alkartasuna Lizeoa, Murumendi ikastetxea, Andramendi ikastola, La Salle-San Jose ikastetxea eta A.E.K. Hobaria: %95*

- b) *%90eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezindu edo mendekotasuna duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean. Eskatutako dokumentazioa:*

- *Eskaera behar bezala beteta.*

- *Mendekotasuna edo minusbaliatasun maila aitortzen duen ebazpena.*

- *Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako laguntza teknikoa jasotzearen aldekoa den orientazio txostena.*

- c) *%95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari begira. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea eta instalazioa borondatezkoa izatea eta ez araudiak hala behartutakoa.*

Aurreko hobariak, elkarren artean, batera ezinak izango dira."

Ikus daitekeenez, Toki Ogasuna arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 103,2 artikuluan aurreikusitako lehenengo hobaria jaso du udal-ordenantzak, Dena den, EIOZk zergapetutako obraren "interes berezia edo udal-erabilgarritasuna" kontzeptua kontzeptu juridiko zehaztugabea da, baina horrek ez du esan nahi hobariaren aplikazioan diskrezionalitatea dagoenik.

Obra jakin bat udal-intereskotzat zein kasutan jo behar den argi eta garbi identifikatzea zaila denez, hobaria zein kasutan aplikatu behar den arautzea erabaki du Udalak, honako hau adieraztean: "Udal-interes berezikotzat jotzea, hobari hori aplikatzearen ondorioetarako" eta, ondoren, horiek zerrendatzean.

Horrela, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak dioenez (2012-06-14ko epaia), "eztabaidatutako hobariari dagokionez, udalak duen diskrezionalitatea dagokion ordenantzan ezarri, arautu eta kuantifikatzeko baino ez da existitzen, baina behin udal-arau horretan hobaria araututa, Udalak kasu zehatzean hura aplikatzeak ez du esan nahi inolako diskrezio-ahalmenik izango duenik, nagusiki arautua baizik".

Beraz, udal-diskrezionalitatea ordenantzako hobariaren araudi-erregulazioarekin agortzen da, azaldutako legezko mugekin, baina behin ordenantzan erregulazioa ezarrita, Udalak diskrezionalitaterik gabe aplikatzera mugatu behar du.

CAFek hobaria eskatzen duen eta EIOZk grabatzen duen eraikina, ez da sartzen udal-ordenantzako a) ataleko hobarietan.

Horrez gain, adierazi behar da uholde-arriskua ezabatzeko interes publikoak ez duela nahitaez esan nahi bulego-eraikina udal-interes berezikotzat jo behar denik. Hauek berezi behar dira:

1.- Alde batetik, Beasaingo biztanleen onurarako uholde-arriskua ezabatzeko interes publikoa, honako hauek behar dituen:

- Ibaiaren ezker aldean dauden eraikinak eraistea.
- Lehendik dauden zubiak ordezkatzea.
- Ibilgua handitzea eta luzetarako defentsak eraikitzea.

Interes publiko horrekin batera hobaria eskatzen duen enpresaren interes partikularra ere badago, izan ere bere idatzian aipatzen duen hitzarmenaren bosgarren azalpenean honako hau esaten da: "... CAF jakitun da aipatutako obra hidraulikoak egiteak eta uholde arriskuak kentzeak berak egiten duen jarduera industrialari onura ekarriko diola, baita segurtasunari eta etorkizuneko egonkortasunari ere. Nolanahi ere, obra hidrauliko horiek osatu egin beharko dira gaur egun eta etorkizunean enpresak bere jarduera industrial garatzeko dituen eta izango dituen premiei erantzuteko. Hori dela eta, hainbat jarduketa egin beharko dira, baita jarraian adierazten direnak ere. "

2.- Bestetik, eraikuntzaren udal-interes bereziko deklarazioa. Hurrengo puntuan aztertzen da, jurisprudentziak adierazitakoa kontuan hartuta.

3.- JURISPRUDENTZIA-ERREFERENTZIAK

Arestian esan bezala, eraikuntzari dagokio gizartearen egoera izatea. Hainbat jurisprudentzia dago hori esaten duena. Adibide gisa, honako hauek aipatzen dira:

- Auzitegi Gorenaren epaia, 2009-05-05ekoa:

"Por otra parte estima que la sentencia es errónea porque la solicitante de bonificación no representa ningún tipo de interés general, sino un interés permanente mercantil, en cuanto empresa adjudicataria de la obra, no siendo la construcción del hospital sino la actividad sanitaria lo que va a satisfacer los intereses o utilidades municipales y supramunicipales, y por ello las circunstancias sociales, culturales y de fomento de empleo no se pueden residenciar en la actividad de construcción del edificio, sino en la actividad que se va a realizar con posterioridad...".

Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 2013-07-24koa;

"...en el caso de autos (construcción de un hospital) si se dan circunstancias sociales —sobre todo— y de fomento de empleo que justifican que el Ayuntamiento de Denia hubiera debido declarar la obra como de interés o utilidad municipal (...) La Sala no tiene duda de que, aparte de circunstancias de fomento de empleo en el municipio, concurren —sobre todo— circunstancias sociales que determinan la declaración de las obras por parte del Ayuntamiento como de especial interés o utilidad municipal; y ello desde el momento en que —de un lado— la prevención, protección y restablecimiento de la salud (que es un derecho individual constitucionalmente consagrado, ex art. 43 CE ha de ser reputado como de marcado interés social, y —de otro, y como ya se ha anticipado— el mayor número de personas que van a poder beneficiarse de la ampliación o mejora de los servicios sanitarios del hospital de que se trata van a ser precisamente los habitantes del municipio de Denia».

Murtziako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 2013-05-03koa:

"...el TSJ de Murcia corrigió la decisión del Ayuntamiento y calificó de especial interés o utilidad municipal la creación de un Centro de Salud, considerando que «los Centros de Salud construidos en un barrio o zona donde antes no existía, son claramente de interés social, atendiendo al servicio sanitario que su construcción

supone para los vecinos de esa zona. No comparte la Sala el criterio expresado por el Juzgador de instancia en la sentencia recurrida de que haya que atender a la construcción física del edificio en si misma considerada, prescindiendo de su finalidad, ya que la finalidad pretendida (dotar a la zona de un servicio sanitario que antes no existía) solamente se puede alcanzar con dicha construcción. De lo anterior se desprende que el Pleno del Ayuntamiento de Lorca, aunque con anterioridad no lo hubiera hecho con los anteriores Centros de Salud construidos en el municipio, tenía la obligación de declarar la obra como de interés social.”

4.- KONKLUSIOAK

Lehenengoa. Tokiko tributuetan, legez araututako onura fiskalak bakarrik ezar daitezke, hau da:

- Nahitaez, salbuesteko edo ez atxikitzeko kasuak.
- Aukeran, hobariak.

Bigarrena. Hobariak:

- Udal Ordenantza Fiskalean araututa egon behar dute (bestela ezingo lirateke eman).
- Legean aurreikusitakoak izan behar dira, nahiz eta arautzeko diskrezionalitatea dagoen.
- Aplikazioa ez da diskrezionala, oso izaera orokorrarekin finkatuta ez badaude behintzat.

Hirugarrena. Gure zerga-ordenantzak, hobariak arautzen ditu EIOZn, eta "eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestu berrien eraikuntza barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik", kasuan udal-interes bereziko kasuak zeintzuk diren aitortzen du.

Laugarrena. Osoko Bilkurari dagokio, gehiengo soilez erabakitzea udal-interes berezikotzat jotzea.

Bosgarrena. Hobariari legezkotasuna emateko benetan garrantzitsua da obrak berak interes soziala izatea, eta, nire ustez, aztergai dugun kasuan, ez litzateke aplikagarria izango honako arrazoi hauengatik:

1.- Hobaria eskatzen den eraikuntza ez dago Udal Ordenantza Fiskaleko hobarien a) ataleko ezein kasutan.

2.- Jurisprudentziako erabakien arabera, hobaria emateko, kontuan hartu behar da zer helburutarako eraikitzen den obra (ez zergatik eraikitzen den eraikin berria). "Udal-interes berezizat" jotzeko, kontuan hartu behar da ondoren garatuko den jarduera.

Azaldutakoaren arabera Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egin dio:

Lehenik.- Idazkaritzako txostena kontuan izanik eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergaren gaineko hobari eskaera EZ ONARTZEA. Txosten horretan ondorengoa ondorioztatzen da: "hobariari legezkotasuna emateko benetan garrantzitsua

da obrak berak interes soziala izatea”, eta “hobaria ez da aplikagarria kasu honetan ondorengo arrazoiengandik:

1.- Hobaria eskatzen den eraikuntza ez dago Udal Ordenantza Fiskaleko hobarien a) ataleko ezein kasutan.

2.- Jurisprudentziako erabakien arabera, hobaria emateko, kontuan hartu behar da zer helburutarako eraikitzen den obra (ez zergatik eraikitzen den eraikin berria). “Udal-interes berezizat” jotzeko, kontuan hartu behar da ondoren garatuko den jarduera.”

Bigarren.- Ebazpen honen eta dagozkion helegiteen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

c.- LANPOSTUEN BALORAZIOA.UDALTZAINGOKO AGENTE ETA AGENTE LEHENA. 2021PEBO0006

Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman da, hau da:

“GAIA: *Udaltzaingoko Agente eta Agente Lehena lanpostuen balorazioa.*”

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Alkatetzatik, udaltzain-goan igande eta jaiegunetan zerbitzua eskaintzeko egutegia ezarri da 2021tik aurrera.

Bigarrena.- Langile batzordearekin adostu zen, jaiegunetan lana egiteagatik ordainsarrietan izango duen eragina azterketa egingo zela.

Hirugarrena.- UDALHITZek Bigarren tituluko V. kapituluan ordainsarien erregimen orokorra garatzen du (art. 64-83). Hain zuzen ere 82. 1 artikuluan adierazten da noizbehinkako egoerak eragindako Zerbitzu Berezien Haborokinetarako jaiegunetan lana egiteagatik. Ondoren 82.2. artikuluan zehazten da Kontzeptu horiengatik ez da aparteko zerbitzurik jasoko, baldin eta, lanposturako finkagarria ez den berariazko osagarria zehazteko, gorabehera horiek ohizkotasunaren arabera haztatu badira.

Berariazko osagarria UDALHITZeko 71. Artikulua zehazten da. Hain zuzen:

1. Lanposturako berariazko osagarriaren kontzeptua, erregulazioa, egitura eta zenbatekoa Euskal Funtzio Publikoaren araudian eta akordio honetan funtzionarioentzat zehaztutakoaren baliokidea izango da.

2. Osagarri hori funtzionala da, eta esleitutako lanpostuan lanbide-jarduera gauzatzearen mende egongo da, modu eskusiboan; beraz, ez da finkagarria izango, Langileen Estatutuaren 26.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera

3. Berariazko osagarria, lanposturako finkagarria ez dena, lanpostuen baldintza bereziak ordaintzeko da, zailtasun tekniko, dedikazio, erantzukizun, bateraezintasun, arriskugarritasun edo nekagarritasun bereziak kontuan hartuta.

Osagarri Espezifikoa tarte orokorrean UDALHITZeko 72. Artikuluan definitzen du:

1. Berariazko Osagarriak, lanpostuari finkaezina denak, lanpostuen funtsezko ezaugarriak ordaintzen ditu, lanpostuaren zailtasun tekniko bereziari, erantzukizunari, bateraezintasunari, arriskugarritasunari edo nekagarritasunari dagokienez, baldin eta lanpostuari ohikotasunez, jarraian eta noizbehinka eragiten badiote.

2. Halaber, nekagarritasuntzat hartuko da jaiegunetan edo gauetan zerbitzuak emateko betebeharra, aurreko puntuan adierazitako ohikotasun-betekizunarekin bat etorriz.

Laugarrena.- Lanpostu hauen ordainsarien inguruko akordioa, Alde Sozialarekin adostutakoak Balorazio Mahaiaren bileretan, aurreko 2021eko urtarrilaren 27 izanda, emaitza ondorengoa izan da:

-UDALTZAINGOKO AGENTE LEHENA LANPOSTUA:

Oinarrizko Soldata: C1 Taldea.
D.O.: 17
O. Espezifikoa: 26.238,56 €/urtean.

-UDALTZAINGOKO AGENTE LANPOSTUA:

Soldata: C1 Taldea.
D.O.: 14
O. Espezifikoa: 22.282,60 €/urtean.

Goian aipatutako aurrekariak ikusi eta gero, Antolakuntza Batzorde honek, arlo honetan eskumena duen organoari eramaten dio ondorengo:

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Proposamen honen laugarren aurrekarian jasotako postuen osagarri espezifikoa onartu.

-Udaltzaingoko Agente Lehena.

-Udaltzaingoko Agentea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): En este punto nosotros nos vamos a abstener. Con ello no queremos decir que estamos en contra de la propuesta, pero tenemos dudas de si el coste que va a suponer el servicio va a ser proporcional al rendimiento que se va a obtener. El gasto es aproximadamente de 50.000,00 €. Estamos de acuerdo en que se pague lo que se trabaje, pero dudamos de si merece la pena y queremos que se haga seguimiento de ello.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zuk esan duzu. Azken finean orain hasieran gaude eta dugun informazioaren arabera Beasaingo herriak beharrezkoa du, baina edozein ekintza berri martxan jartzen denean bezala jarraipena egitea beharrezkoa da. Jarraipen horrek esango digu onartutako formula egokia den ala ez.

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Ados gaude langile batzordearekin adostu delako. Agian aurrerantzean eztabaidatuko dugu udaltzainen hautaketa prozesua baina, momentuz ados gaude proposamenarekin.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

d.- PERTSONALAREN ORDAINSARIEN SOLDATA IGOERA 2021ERAKO.
2021PEBO0004

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena;

"AURREKARIAK

1. 2021/12/31an argitaratu zen EAOn 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(...)Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneousotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

2. Aurrekoa ikusita, abenduaren 30eko 11/2020 Legea indarrean sartu ondoren, eta Eudelek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

11/2020 Legearen 18 Bi artikuluen edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, lege onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneousotasuna mantenduz.

Gomendio horren bidez, Eudelek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, eta horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berri bat lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELEK berretsi du garrantzitsua dela "UDALHITZ 2008-2010 Akordioa" bere terminoetan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean baitago haren berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio du. Ildo horretan, gaur egungo UDALHITZ 2008-2010 betetzeak izan ditzakeen hutsuneak

konpontzeko tresnak, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako "jarraipen-mahaiak" izan beharko luke. Gogorarazten dizuegu mahai hauen xedea dela, soil-soilik, egungo UDALHITZ 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen balizko ez-betetze puntualak konpontzeko akordioak erraztea, eta ez dutela ireki behar kanpoko gaiei buruzko edozein negoziazio-prozesu, zeinaren aplikazio-eremua EUDLEn eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziatio Mahai Orokorrean dagoen.

3. Aurreko 2021-01-29eko sindikatuen ordezkariekin izandako bileraren akta, non aipatzen da, hurrengo Antolakuntza Batzordearen bileran, ordainsarien soldaten igoeraren proposamena sartu behar dela.

AKORDIO PROPOSAMENA:

1. 2021eko urtarrilaren 1etik % 0,9ko ordainsarien igoera.

2. Talde politikoetarako esleipenak eta kide anitzeko organoen bileretara joateagatiko kalte-ordainak 2021tik aurrera eguneratuko dira, funtzionarioei dagokienez proposameneko 1go puntuan ezarritakoaren arabera...."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu) galdetu du ea bi bozketa egin daitezkeen, hau da, alde batetik langilearekiko soldata igoera eta beste batetik, zinegotzien asignazio eta asistentzien igoera."

Alkate andreak (EAJ-PNV) esan du langileen soldatak igotzen direnean, zinegotzien asignazio eta asistentziak igotzen direla.

Zalantza sortu da ea 2020an zinegotzien tokatzen zaizkien ordainsarietan langileentzako onartutako igoera aplikatu zen. Kontuhartzaileak eta idazkariak baieztatu egin dute.

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu) esan du zinegotzientzako onartuta dauden asignazio eta asistentzien kopuruekiko beti desadostasuna azaldu dutela eta igoerak kopuru hori gehitzea dakarrela.

Idazkariak esan du, 2018an Korporazio osatu zenean hartutako erabakia dela hori eta horren ondorioz egin beharko litzatekeela erabaki hori bertan behera uztea proposatu beharko litzatekeela edo bestela, aurtengorako bakarrik proposatu zinegotzien ordainsariari ez aplikatzea igoera.

Horren ondorioz,

Lehenik bozkatu da proposamenaren lehenengo puntua, hau da, 2021eko urtarrilaren 1etik udal langileei %0,9ko ordainsariak igotzea.

Aho batez onartu da proposamena.

Bigarren bozkatu da talde politikoetarako asignazioei eta kide anitzeko organoen bileretara joateagatik asistentziei, %0,9ko igoera aplikatzea.

Bozketaren emaitza ondorengoia izan da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)
Abstentzioak: 0

Gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

4.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- DIRULAGUNTZAK EMATEA. MERKATARITZA SEKTOREA BIZIBERRITZEKO OINARRIAK. 2021. URTEA. 2021MEPO0006

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena:

“Udalak merkataritza sektorea biziberritzeko oinarriak idatzi ditu. Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da.

Horretarako lehenetsuna izango dute Jose Migel Iturrioz kalean dauden lokalek eta negozioek, kontuan izanik:

- 1. Merkataritza Biziberritzeko plan berezia.*
- 2. Lokal hutsen kopurua kaleka.*
- 3. Udalak merkataritza sustatzeko duen interesa eta batez ere Jose Migel Iturrioz kaleko merkataritza, izan ere, gaur egun ez baitago oso aktibo arestian aipatutako ikuspuntutik.*

*Xede hau betetzearren **Udalak hiru dirulaguntza lerro** idatzi ditu:*

1. Oraindik martxan dagoen eta eskualdatu nahi den negozioa alokatzeko edo erosteko dirulaguntzak. Berriz Enpresa.

Merkataritza-establezimendua edo negozioaren lokala hartu nahi duten sustatzaileek Eusko Jaurlaritzaren BERRIZ ENPRESA enpresa-jarraipenerako programan parte hartu beharko dute eta bertan zehaztutako baldintzak bete.

Behin BERRIZ ENPRESA programaren babespean transmisioa egiten denean, jarduera burutuko den espazioa alokatu edo erosi egin daiteke.

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez lehen hiru urteetako alokairu-gastuak diruz ordainduko zaizkio.

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.*
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.*

Establezimendua erosiz gero, dirulaguntza Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

2. Hutsik dagoen lokala alokatzeko dirulaguntzak.

- *Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.*
- *Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean*

3. *Hutsik dagoen lokala erosteko dirulaguntzak.*

Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

LEGERI APLIKAGARRIA:

2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.

PROPOSAMENA:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza deialdia egitea honela baldintzatuta egongo da: emango diren dirulaguntzen hiru ekitaldi ekonomikotan ordaintzeko behar diren kredituei behin betiko onartuta egon beharko dira.

Udalerriko merkataritza sustatze aldera Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik: *Merkataritza sektorea biziberritzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu) salatu egin du beraiek batzordean aurkeztutako hainbat proposamen kontuan ez izatea eta horren ondorioz esan du abstenitu egingo direla. Diru laguntzekin ados gaude baina 2. urtean eta 3. urtean ere %50ak izan beharko lirake. Ez dute ulertzen 1. urtean gehiago izatea bermatu behar denean, establezimendua irekita egotea.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Proposamen batzuk onartzen dira eta beste batzuk ez, irizpide ezberdinak ditugulako. Guk lehenengo urtean %50a ematea eta 2. eta 3. Urteetan %40a ematearen arrazoia da 1. urtean alokairu gastuaz gain negozioa martxan jartzeko gastuak ere daudela eta hauek normalean 2. eta 3. urteetan ez direla izaten. 2020an martxan jarri zen dirulaguntza hau. 4 eskaera jaso ditugu eta lauen artean 10.000,00 €ko dirulaguntza jaso dute. Horrek poztu egiten gaitu esan nahi duelako Beasainen negozioak irekitzea animatzen direla. Momentu honetan, Berriz proiektua dela eta bakarra dagoela esango nuke eta beste hiruak erosteko edo lokala alokatzeko dira, baina ez da eskualdaketarik egon.”

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu) eskatu du beraiek aurkeztutako proposamenak aztertzea eta ez automatikoki ezezkoa jasotzea beraiek aurkezten dituzten proposamenak.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Hor iritzi ezberdinak daude. Lurralde batzordean ere lokalen araudiaren testuarekiko zuek beste erredakzio bat proposatu zen eta egokitzeotan geratu ginen, zirriborroa jendaurrean jarri baino lehen. Gure asmoa ez da zuen proposamenak baztertzea, baizik eta guk aurkeztutakoak egokitu badaitezke zuek egindako ekarpenekin aztertu egiten ditugu.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean zazpi proposamen aurkeztu genituen baina ez dute zuen on iritzirik jaso. Bideragarritasun

planak egiten direnean, beti esaten da 1. urtean ez dela hobaririk jasotzen eta hori eta egungo egoera kontuan izanda, datoz gure proposamenak . Askotan iruditzen zaigu guk proposatzeagatik atzera egiten dela. Iruditzen zaigu proposatzen ari garena ekonomikoki ez duela hainbeste gastu suposatzen.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin oinarri hauek onartu dira:

MERKATARITZA SEKTOREA BIZIBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2021 URTEA

1. XEDEA

Oinarri hauen helburua merkataritza sektorea biziberritzea da, hutsik dauden lokalak martxan jartzeko laguntzak emanez eta eskualdatzen denean negozioen jarraipena bultzatuz. Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da.

Horretarako lehentasuna izango dute Jose Migel Iturriotz kalean dauden lokalek eta negozioek, kontuan izanik:

- 1. Merkataritza Biziberritzeko plan berezia.*
- 2. Lokal hutsen kopurua kaleka.*
- 3. Udalak merkataritza sustatzeko duen interesa eta batez ere Jose Migel Iturriotz kaleko merkataritza, izan ere, gaur egun ez baitago oso aktibo arestian aipatutako ikuspuntua kontuan harturik. Iturriotz kaleko lokaletarako eskaeren kopuruak esleitutako kreditua gainditzen badu, dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko da.*

2.FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 10.000 euroko kreditua aurreikusia du, honetarako sortutako aurrekontu honetan: 1.0243.481.431.50.01.

3.APLIKAZIO-EREMUA ETA DIRULAGUNTZA MOTAK

Beasainen merkataritza-jardueraren bat abiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei zuzendurik dago deialdia, edonon bizi direla ere.

Merkataritza aldetik indarra galdu duen inguruan merkataritza-jarduerak zabaltzera eta indartzera bideratuko dira oinarri hauetan araututako laguntzak.

Helburu horrekin, Beasaingo Udalak dagoeneko itxita dagoen lokala eskuratzeko edo alokatzeko edo oraindik irekita dauden baina ixteko asmoa duten enpresen transmisioan laguntzeko dirulaguntzak emango ditu.

Dirulaguntza hau jaso ahal izateko establezimenduaren kanpoko nahikz barruko, finko eta iraunkorrek diren errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz edo elebietara egingo dira.

Honetarako hiru dirulaguntza lerro ditu Udalak:

- A. Oraindik martxan dagoen negozioa eskualdatzeko dirulaguntzak. Berriz enpresa.*
- B. Jarduera bat garatzeko dagoeneko hutsik dagoen lokal hutsa alokatzeko dirulaguntza.*
- C. Jarduera bat garatzeko, dagoeneko hutsik dagoen lokal hutsa erosteko dirulaguntzak.*

**A. ORAINDIK MARTXAN DAGOEN ETA EROSI EDO ALOKATU NAHI DEN
NEGOZIOA ESKUALDATZEKO. BERRIZ ENPRESA**

Beasaingo enpesen transmisioak lagundu eta merkataritzako eremuak erakargarri eta atseginoak egiteko Eusko Jaurlaritzak BERRIZ ENPRESA garatu du.

Berriz enpresa programa enpresen eskualdaketa bat eman eta Beasaingo negozio baten ardura hartu nahi duten pertsoneri laguntza teknikoak emateko baldintzak arautzen dituen programa da.

Baldintzak:

- a) Lokalen kokapena eta ezar daitezkeen jarduerak.*

Negozioak Beasaingo udalerriko merkataritza-eremuan kokatuta egon behar du. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan: txikizkako merkataritza, pertsoneri zuzendutako enpresak eta merkataritza aldetik udalerria suspertzen lagunduko duten bestelako proiektuak.

- b) Martxan dagoen negozioa hartu nahi duten pertsona ekintzaileak.*

Kasu honetan Merkataritza-establezimendua edo negozioaren lokala hartu nahi duten sustatzaileek Eusko Jaurlaritzaren BERRIZ-ENPRESA enpresa-jarraipenerako programan parte hartu beharko dute eta bertan zehaztutako baldintzak bete.

Titularrek onspena emanda, BERRIZ ENPRESA (Eusko Jaurlaritzak sustatutako programa Merkataritza Bazkundearekin elkarlanean) programaren babesean negozioaren transmisioa gauzatu duten Beasaingo negozioek transmisioa egiteko laguntza teknikoa izango dute.

- c) Betebeharreko baldintzak.*

Negozio horrekin jarraitu nahi duten ekintzaileek egunean izan beharko dituzte Administrazio publikoekiko zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzakekikoak.

- d) Berriz Enpresa programan parte hartzea. Udalaren dirulaguntza.*

Behin BERRIZ ENPRESA programaren babespean transmisioa egiten denean, jarduera burutuko den espazioa alokatu edo erosi egin daiteke.

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez lehen hiru urteetako alokairu-gastuak diruz ordainduko zaizkio, betiere hurrengo ekitaldietako aurrekontuan hitzartutako kopuruak jasotzen badira.

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean. Horretarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen, urte horri dagozkion fakturak aurkeztu beharko ditu

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak etab.)

Establezimendua erosiz gero, dirulaguntza Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

B. HUTSIK DAGOEN LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK.

Baldintzak:

a) Aplikazio-eremua eta dirulaguntza motak.

Negozia Beasainen egon behar da. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan: txikizkako merkataritza, pertsonen zuzendutako enpresak eta merkataritza aldetik gunea suspertzen lagunduko duten bestelako proiektuak.

Dirulaguntza jasotzen duen titularrak nahitaez erabili beharko du lokala aurkeztutako proiekturako, eta ezin izango du lokala beste jarduera mota baterako erabili.

b) Lokal huts baten ardura hartu nahi duten ekintzaileak.

Bere jarduera ekonomikoa Beasaingo lokal hutsen batean bat hasi nahi duten pertsona fisiko edo juridiko guztientzat izango da deialdia, interesatuaren bizilekua edozein dela ere.

c) Aurkeztu beharreko dokumentuak

Jarduera garatzeko lokal hutsak berreskuratzen dituzten ekintzaileek 6.artikuluaren adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

d) Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak

Udalak ondorengo balorazioen arabera esleituko ditu dirulaguntzak:

- Originaltasuna eta berrikuntza gehienez 10 puntu.
 1. Kontuan hartuko da jarduera burutzen den gunean ezaugarri berdineko merkataritza-jarduerarik dagoen.

2. Establezimenduak teknologia berrien eta alderdi berritzaileen alde egin duen apustua.

3. Proiektuaren harremana, Beasaingo nortasunarekin eta bere kulturarekin. Udallerriari, Beasaingo azokei, merkataritza-sareari eta abarri egindako ekarpena.

- Sortutako lanpostuak, gehienez ere 10 puntu. Proiektuan zenbat lanpostu sortu diren hartuko da kontuan. Sortuko den lanpostu bakoitzeko puntu bat emango da, gehienez ere 5 puntu izango dira.

e) Dirulaguntzaren zenbatekoa eta iraupena.

Dirulaguntzak eskuratzeko gutxienez hiru urteko iraupena izan behar du alokatze-kontratuak. Gehienez ere lehenengo hiru urteko alokairu gastuak lagunduko dira:

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta arindarraren gastuak etab.)

Udalaren deialdi bakoitzean onartutako dirulaguntza, gehienez ere 12 hilabeteko alokairu gastuei dagokiena da.

Hurrengo bi urtetan dirulaguntza jaso ahal izateko, urtero azaroan eskabidea eta dokumentuak (proiektua izan ezik) aurkeztu beharko dira, eta urterokoen zenbatekoa, berriz, goian adierazitakoa izango da.

C. HUTSIK DAGOEN LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK.

Hutsik dagoen lokala erosteko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, hutsik dagoen lokala alokatzeko jarritako baldintzen berdinak dira, dirulaguntzaren zenbatekoa bakarrik aldatuko da.

a) Zenbatekoa

Dirulaguntza katastro-balioaren %4, gehienez ere, 2.000€.

4. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak azterzeaz eta ebaluatzeaz Dirulaguntza emateko, jarduerak udal lizentzia eta baimen egokiak dituela egiaztatuko da. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ordainduta, onuradunak baldintzak betetzen ez baditu, eskuratutako dirulaguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

5.DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

6.ESKAERAK AURKEZTEA.

-Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2021-10-30ean amaituko da.

-Modua:

Dirulaguntza eskatzen duten ekintzaileek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala), edo Udalaren erregistroan, I. eranskineko ereduaren arabera.

-Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskatera inprimakia behar bezala beteta.
- Pertsona fisikoak: NAREN fotokopia.
- Pertsona juridikoak: IFKren kopia, legezko ordezkariaren NA eta ordezkatzeko ahalmena duela ziurtatzen duen agiria..
- Zerga betebeharrak eta Gizarte segurantzarekikoak egunean dituela jasotzen duen erantzukizun adierazpena.
- Dirulaguntzen onuradun izateko debeku egoeretan ez egotearen erantzukizun adierazpena.
- Alokairuaren kontratuaren kopia edo salerosketaren eskritura publikoa dirulaguntza eskatzen den egunean erregistratutako erregistroaren informazioko ohar sinplearekin batera.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren altaren kopia.

. Jarduera berria iresitzen denean, bideragarritasun plana edo proiektuaren azalpen txostena. Bertan puntu hauek jorratuko dira, besteak beste: burutuko den jarduera, merkatua, bezeroak/hornitzaileak, helburuak eta alderdi berritzaileak.

. Errotuluak, oharak, seinaleak, kartelak eta kanpoaldeko eta barruko gainerako komunikazio orokor finko eta iraunkorrak euskaraz edo elebitan egingo direla frogatzen duen dokumentazioa.

- Berriz Enpresa programari atxiki bazaio, horren egiaztagiria.

7. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA EDO EZ BETETZEA

-Baldintzak aldatzen badira (lehenengo alokairu-kontratua eta gero erosketa), dirulaguntzaren berrikuspena egingo da.

-Emakidarako emandakoak betetzen ez badira, horiek itzultzeko prozedura hasiko da.”

b.- DIRULAGUNTZAK EMATEA. SALTOKIETAKO ETA JARDUERETAKO ERROTULUETAN, IRUDI KORPORATIBOETAN ETA WEB-ORRIETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO OINARRIAK. 2021. URTEA. 2021EUAD0001

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK:

2008ko ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizakari Ofizialean argitaratu ziren Merkataritzako errotuluak, irudi korporatiboa eta web-gunea euskaraz osorik edo ele bietan/anitzetan jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarriak. Dirulaguntza horien helburua establezimenduen hizkuntza paisaia euskalduntzea izan zen.

2018.urtean dirulaguntza horietan aldaketa batzuk egin ziren, diru-kopurua hazita

LEGERI APLIKAGARRIA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA

Merkataritzan hizkuntza paisaia euskalduntze aldera, eta gaztelaniaz dauden errotulu nagusia eta irudi korporatiboko elementuen kopurua jaiste aldera, Herritarrak batzordeak Gobernu batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: Errotuluen kasuan, dirulaguntza kostuaren %50 izatea, gehienez ere 240 euro izatea.

Bigarrena: Irudi korporatiboen kasuan, testua euskara hutsez jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak eta dirulaguntza gehienez ere 180 eurokoa izatea.

Hirugarrena:

a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %50 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 450 euro.

b) Web-orria euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %40 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 360 euro.”

Alkate andreak esan du 2019an bederatzi eskaera egon zirela eta 2020an, zazpi.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Urdangarin Irastorza jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Gure botoa baiezkoa da, euskaren normalizaziorako pausotxo bat delako, baina jarraipena egin behar da. Batzordean esandakoaren arabera, gure ustez, egiten den jarraipena puntuala da eta jarraipen sistematizatua egin beharko litzateke. Beasaingo paisaia euskalduntzeko

lagungarria da baina hortik haratago egunerokotasunean ahaleginak egin beharko genituzke euskalduntze aldera.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Jarraipena egiten dela esango nuke. 2016. urtean 2 eskaera jaso genituen eta azken urteotan zerbait lortu dela esango nuke. Batzuetan frankiziak direla ezin dituzte errotuluak euskaraz jarri baina ahal den heinean euskaraz jartzeko animatzen zaie. Ados esaten duzunarekin. Jarraipena areagotzen saiatuko gara. Ados baita ere euskalduntze paisaiarekiko esan duzunarekin eta egunerokotasunean euskarekiko ahaleginak egitearekin.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

1. XEDEA

Deialdi honen xedea jarduera publizitzeko asmoz errotuluetan, irudi korporatiboan eta web orrietan (aurretiko ordainketarik gabe) euskara erabiltzen duten Beasaingo merkatariei eta jardueri 2021 urterako dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 2.000 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: 0243.471.335.30.01.

Gehieneko zenbateko osoaz gain (2.000,00 €), aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, diru-laguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ESKATZAILEAK

Dirulaguntza jaso ahal izango dute, aldez aurretik eskatuta, bere jarduera ekonomikoa Beasaingo udalerrian dauden lokaletan egiten dutenek.

Dirulaguntza hauek ezin izango dituzte jaso:

- a) Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, helburu sozial hori duten elkarteak, euskaltegiak.*
- b) Ikastetxe kontzertatuak, entitate publikoak, alderdi politikoak eta sindikatuak.*
- c) Industria-jarduera dutenek.*

4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

- 4. Dirulaguntza guztiak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:*

-Jarduera Beasaingo udalerriko lokaletan burutzea.

-Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da. Horretarako komenigarria da aldez aurretik Hizkuntza Politika sailean kontsulta egitea.

-Udal Ogasunarekin zorrik ez da izango.

-Egunean izango dira Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak

b) Errotuluen eta irudi korporatiboaren kasuetan:

Testua euskaraz bakarrik egotea.

Ez da onartuko pertsonaren izen eta deiturak bakarrik edukitzea.

c) Web-guneen kasuan:

Beasainen helbide fiskala izatea.

Web-gunea euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da, eta lehenetsunez sarreran euskarazko hautapena egina egon behar du.

5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza horiek emateko aurreikusitako hasierako kreditua handitzeko aukera kontuan hartuta, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie, eta 8. artikuluan adierazitako zenbatekoari.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

Oinarriak argitaratzea eta eskaerak aurkezteko epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2021-10-01ean amaituko.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala) edo Udalaren erregistroan, I.eranskineko ereduaren arabera.

Aurkeztu beharreko agiriak: *Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:*

Kasu guztietan: 2021eko jarduera ekonomikoari dagokion gastuen jatorrizko faktura

.

Errotuluen, web-guneen eta irudi korporatiboen kasuan:

-Errotuluak:

- *Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia.*

-Irudi korporatiboa:

a) *Laginen bidez egiaztatuko da.*

-Web-orriak: *Web-gunearen helbidea.*

Dirulaguntzaren eskaera behar bezala beteta egon ezean, daturen bat falta bada edo eskatutako agiriren bat falta bada, eskatzaileari (bai pertsonari edo entitateari) 10 egun baliodunetan zuzentzeko eskatuko zaio, eta hori egin ezean, bere eskaera izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela adieraziko zaio.

Onuraduna jarduera horretarako beste laguntzaren bat jasotzeko zain edo jasota egonez gero, laguntza horren deskribapen zehatza egin beharko du, eta dirulaguntzen baturak inoiz ezingo du burututako gastuaren %100 baino gehiago izan.

8. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. Errotuluak:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 240 euro.

2. Irudi korporatiboa:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 180 euro. Dirulaguntza gehienez ere, 180 eurokoa izango da.

3. Web-orriak:

a) *Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 450 euro.*

- *Web-gunea euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %40 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 360 euro.*

9. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK

EZ BETETZEA

Kasu honetan, ez da bidezkoa diru-laguntza lortzeko baldintzak egiaztatu behar izatea."

c.- OSTALARIEI DIRULAGUNTZAK BEASAIN EREMU GORRIAN EGOTEAGATIK ESTABLEZIMENDUAK IXTERA BEHARTUTA EGOTEAGATIK. 2021MEPO0008

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena:

1. Beasaingo ostalaritzako establezimenduak itxita egon dira 2020ko abenduaren 15etik urtarrilaren 25era bitartean (biak barne) Lehendakariaren 44/2020 Dekretuak derrigortuta. Izan ere, dekretu honen arabera 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, COVID-19 kasu positiboan intzidentzia-tasa metatu bat egon behar da azken 14 egunetan, eta tasa hori 500etik beherakoa izan behar da 100.000 biztanleko, gainerakoan establezimenduak itxita egon behar dira. Beasain arestian aipaturiko datan eremua gorrian egotean bertako ostalaritzako establezimenduak itxita egotera behartuta egon dira.

2. *Ostalarien lehengo egoera larria, Lehendakariaren 38/2020 Dekretuak derrigortuta ostalaritza erabat itxita egon denez, oraindik gehiago luzatu du Beasain eremu gorrian egoteak. Beraz, esan dezakegu honegatik guztiagatik COVID-19ak Beasaingo ostalaritza kalte handiak eragin dituela.*

3. *Ostalaritza izandako kalteak arintzeko helburuarekin Beasaingo Udalak Beasain eremu gorrian egoteagatik establezimenduak ixtera behartu dituztenentzat dirulaguntzak emateko oinarriak idatzi ditu.*

LEGERI APLIKAGARRIA

.2/2016 Legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 17.artikulua, 34 .Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA

Udaleko ostalaritza sustatze aldera Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik: Beasain eremu gorrian egoteagatik udalerriko ostalaritzako aktibitatea itxita egon den hilabete bakoitzeko (osoa ez dena proportzioan) langileen arabera dirulaguntza hauek ematea onar dezala:

- 1.000 euro langile bat bi edo hiru dituzten aktibitateentzat.*
- 1.200 euro lau, bost edo sei langile dituzten aktibitateentzat*
- 1.400 euro 7 langile edo gehiago dituzten aktibitateentzat*

Dirulaguntza honetarako emando den gehieneko dirulaguntza 3.000 eurokoa izango da.

Dirulaguntzen kalkulua egiteko, langileen guztizko zenbatekoak hartuko dira, autonomoak eta soldatapekoak.

Jardunaldi osoa lan egiten duen langileak langile oso bat bezala konputatuko du eta lan jardun partziala daukatenek, lan jardunaren frakzioaren arabera.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “maiatza bitartean ixtea behartuta egon ezkerro, laguntza hauek izango dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos de acuerdo con la propuesta. Ya en el Pleno anterior mostramos nuestra conformidad a colaborar para que se ofrezcan este tipo de ayudas. Ya expresamos también en la comisión que la precaria situación en la que se encuentran no está provocada por el cierre, sino que viene de antes. Acertadamente desde el Gobierno Vasco ya se aprobaron ayudas para la hostelería y estas ayudas serian complementarias, lo cual es muy positivo.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk faltan botatzen dugu oinarri zehatzagoak izatea. Badirudi beraiekin adostutakoak ez direla izan eta esaten dutena da oso urrun gertatzen direla. Proposamena eskasa dela iruditzen zaigu. Behin eta berriz esan da laguntza hauek beste erakunde batzuek ateratakoen osagarriak direla. Ona izango litzateke jakitea, herriko ostalariek orain arte zenbat jaso duten eta zein kontzeptutan. Udal gobernari eskatzen diogu horren azterketa egin ondoren, laguntzak

onartzea. Iruditzen zaigu laguntza hauetarako Jaurlaritzak ateratako parametro berdinak erabili direla, baina guri eskasak iruditzen zaigu eta horren ondorioz abstenitu egingo gara.”

Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV): “COVID egoera honetan murgildu ginenetik hainbat bilera egin ditugu, ostalari, merkataria eta zerbitzu eta arduradunekin eta bilera horiek ondotik atera ziren 2020ko dirulaguntzak: bonuak, tasetan hobariak, terrazetan estalkiak jartzeko laguntzak. Azken aste honetan ostalarien ordezkariarekin elkartuta eta aparteko egoera kontuan hartuta, dirulaguntza lerro hau dakarkigu onartzeko asmotan. Esaten duzue adostasunik ez dagoela. Adostasuna badago. Gertatzen dena da, eskasa iruditzen zaiela. Adostasuna forman badago, baina zenbatekoan, agian ez. Guk ere pentsatu behar dugu justizia sozial aldetik, ostalariez gain, merkataria, industria, norbanakoak..., eremu askotara iritsi behar dugula eta gura saiakera dela 2021ean ere hor egotea eta ez bakarrik ostalaritarako baizik eta beste dirulaguntza batzuk emateko asmotan. Establezimenduetako ordezkariarekin elkartuko gara eta marraztuko ditugu 2021erako laguntzak. Gutxi gorabehera ikusten dugu iaz izan zirenen antzekoak izan daitezkeela, jakinda egoera ere aldatu dela. Iaz eseri ginen lehenengo aldiz merkataritza itxita egon zenean, gero irekita egonda, gero itxiera perimetrala eta badirudi honek batzuei kalte egin diela. Guzti horretaz hitz egin nahi dugu eta ondoren erabaki zeintzuk izango diren laguntzak eta zenbatekoan. Badakigu zehatz mehatz merkataria bakoitzari zenbat dirulaguntza eman zaion kontzeptu ezberdinengatik. Hortaz haratago, malgutasunez jokatu dugu eta horrek zer suposatu duen, kalkulatu egin beharko genuke.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Azterketa bat egin da beste entitateetatik zer jaso duten jakiteko?”

Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV): “Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza zuzena atera zituen eta jakin dugunaren arabera, jasotzen ari dira. Zer jaso duen bakoitzak?. Hori bakoitzarena da. Gure eskumenekoak direnak zer eman dugun, jakin dezakegu, baina bakoitzak zer eskatu duen eta zer jaso duen!. Guk gure baliabideak eskaini ditugu, adibidez GOIEKI. GOIEKIk konfinamendu hasieran hainbat dirulaguntza tramitatu zituen.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu).

Bozketa eginda, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

COVID-19A DELA ETA, BEASAIN EREMU GORRIAN EGOTEAGATIK ESTABLEZIMENDUAK IXTERA BEHARTU DITUZTEN SEKTOREAN JARDUTEN DUTENENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK.2021.URTEA

1. XEDEA

Deialdi honen xedea 44/2020 Dekretua oinarri hartuta, Beasain eremu gorrian egoteagatik establezimendua ixtera behartu dituztenei diruz laguntzea da, kalteak arintzeko helburuarekin.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 150.000 euroko kreditua aurreikusirik du, honetarako sortutako aurrekontu honetan: 0243.471.433.10.04

Gehieneko zenbateko osoaz gain (150.000€) aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntza jaso ahal izango dute, aldez aurretik eskatuta, 44/2020 Dekretua oinarri hartuta, Beasain eremu gorrian egoteagatik establezimendua ixtera derrigortu dituzten sektorean jarduera burutzen dutenek.

4. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

-Ostalaritza jarduera Beasaingo udalerriko lokaletan burutzea.

-Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egotea Beasainen, 2020ko abenduaren 15ean.

-Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.

-Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako zerga betebeharrak egunean izatea.

-Bai norberaren kontuko langilea edo autonomia denean, bai pertsona juridikoa denean Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea Udalerria eremu gorrian egon den bitartean.

-Jarduera gutxienez hiru hilabetez martxan egotea Beasain eremu gorritik atera zen egunetik aurrera.

5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Aurreko artikuluko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie dirulaguntzak eta zenbatekoa 7.artikuluaren adierazitakoa izango da.

Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren ebazpena idazten duenetik hilabete epean egingo da.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak osagarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak helburu berdinerako dirulaguntzak aterako balitu, dirulaguntza horiekin ez dira bateragarriak izango.

7. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Laguntzak bideratuta egongo dira jarduera aurrera eramateko behar diren giza baliabideen gastuak estaltzen laguntzera.

Dirulaguntza hauek jasotzeko bi baldintza hauek hartuko dira kontuan:

1. Beasain eremu gorrian egondako epea. Hilabete osoa itxita egon ez bada proportzioa hartuko da kontuan.

2. Langile kopurua:

- 1.000 euro hilabeteko langile bat, bi edo hiru dituzten aktibitateentzat
- 1.200 euro lau, bost edo sei langile dituzten aktibitateentzat
- 1.400 euro zazpi langile edo gehiago dituzten aktibitateentzat.

Honetarako emango den gehieneko kopurua establezimendu bakoitzeko 3.000 eurokoa izango da.

Dirulaguntzen kalkulua egiteko, langileen guztizko zenbatekoak hartuko dira kontuan, autonomoak eta soldatapekoak.

Jardunaldi osoa lan egiten duten langileak langile oso bat bezala konputatuko du eta lan jardun partziala daukatenek, lan jardunaren frakzioaren arabera.

Laguntzak aplikatuko dira, 44/2020 Dekretua oinarri hartuta Beasain eremu gorrian egoteagatik establezimenduak itxita egon diren artean, 2020ko abenduaren 15etik aurrera.

8. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Dirulaguntza jaso ahal izateko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

-Eskabide orria sinatuta (1.eranskina)

-Aktibitatearen IFKren kopia pertsona juridikoen kasuan edo ordezkariaren NAren kopia autonomoen kasuan.

-Enpresak JEZn alta egotearen ziurtagiria.

-Beasain eremu gorrian egon den epeko Gizarte Segurantzako kotizazioaren ordainagiriak.

-Beasain eremu gorrian egon den epean altan dauden langileak adierazten dituen Gizarte Segurantzaren ziurtagiria.

9. OINARRIAK ARGITARATZEKO ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta ondoren GAO n argitaratuko dira.

-Noiz: Eskabideak oinarriak GAO n argitaratzen diren hurrengo egunetik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean aurkeztu beharko dira.

-Moduak:

.Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta, aurretiko txanda eskatuta. Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.

.Udalaren erregistro elektronikoaren bidez.”

d.- DIRULAGUNTZAK EMATEA. GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIAARRENTZAKO LAGUNTZAK. 2021. URTEA. 2021LALE0001

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena:

“

GAIA: 2021EAN ZEHAR LANKIDETZA-PROGRAMETARAKO 2021EKO AURREKONTUKO DIRU-SARRERA ARRUNTEN % 1AREN BANAKETA ETA GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIAARENTZAKO LAGUNTZEN OINARRIAK 2021.

AURREKARIAK

I. Badira jadanik legealdi batzuk non Beasaingo Udalak lankidetza egitarau ezberdinei bere aurrekontuko diru-sarrera arruntetik %1a zuzentzen duela.

- % 70 garapen-proiektuetara (% 45 Euskal Fondoa eta % 25 Garabide)
- % 15 larrialdietarako laguntzetarako edo ekintza gizatiarrentzako.
- % 7 hondamendiak gertatu diren edo garatzeko bidean dauden herrialdeetatik datozen haurren aldi baterako laguntzei
- % 8 Herriko gazte lankideentzako beketara

II.- COVID 19aren munduko pandemia dela eta, 2021ean, 2020an bezala, aurreikusten da ez dela bideragarria izango hondamendiak gertatu diren edo garatzeko bidean dauden herrialdeetatik datozen adingabeen aldi baterako udalerrian harrerarik egitea, ezta herriko gazte laguntzaileei bekarik ematea, garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzan aritzeko.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

-Euskal Herriko 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

I.- 2021erako lankidetza-programetarako ehunekoak aldatzea. Honela geratuko dira:

-%70 garapen-proiektuentzat (%45 Euskal Fondoa eta %25 Garabidea).

-%30 garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako laguntzentzat.

II.- 2020.481.230.20.01 kontusail espezifikoaren kreditu osoa (50.000€) garapen bidean dauden herrialdeentzako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako erabiliko da.

III.- Garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako 2021eko laguntzen oinarriak onartu eta GAOean argitaratu.”

Bozketa eginda, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIAARENTZAKO LAGUNTZAK 2021

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako edo ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrez daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertzeko ezkor guztiak.

2.- Aurrekontua

1 0220.481.230.20.01 kontusail espezifikoa 50.000 euroko kreditua kontsignatu zen, lankidetzaz jardueretarako.

3.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntza edo erakunde izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorriz jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEan baldin badute.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

4.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den larrialdiko egoerari buruzko txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du.

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik (zeharkako gastuak kontutan izan gabe) gehienera, %10a bideratu ahal izango da erbesteratutako langileen gastuentzat (bidaiak, dietak, e.a. barne) eta zeharkako gastuentzat %7a.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

- Deialdi hau egin duen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du diru-laguntza eskatu duten pertsona edo enpresek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela. Horretarako pertsona horiek espresuki oniritzia eman beharko dute. Oniritzirik ez badute ematen, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte interesatuek.

5.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da 2021eko irailaren 15a arte.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

6.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako diru-laguntzak hainbanatuta emango dira diru-laguntzaren onuradunen artean, aurkeztutako proiektuaren zenbatekoaren arabera (Diru-laguntzei buruko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. Artikulua).

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate azpiarloak txosten bat egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkatetzari hark ebatz dezan.

Beasaingo Udalak Gobernu Kanpoko Erakundeak eskatutako diru-laguntza osoa ez ematea proposatuko balu, edo eta aurkeztutako proiektuan aldaketak egongo balira (proiektuaren exekuzioan, diru-sarreretan edo/eta gastuetan, e.a.) erakunde eskatzaileak aldaketa hauen berri eman beharko dio Beasaingo Udalari lehenbailehen eta proiektuaren eta aurrekontuaren birformulazioak aurkeztu beharko dizkio. Beasaingo Udalak proiektuaren aldaketa aztertu ondoren ebatzen berri bat eman ahalko du.

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi behar zaio.

7.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen antolakuntza orori, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epe-amaieratik zenbatutako 2 hilabeteko epean.

8.- *Ordaintzeko modua.*

Diru-laguntzaren % 100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

9.- *Diru-laguntza egiaztatzea.*

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Onartutako zuzeneko gastuen kopuruaren transferentzia egin izanaren froga-agiria. Froga-agiri horretan, transferentziaren kontzeptuan hain zuzen ere, proiektuaren izena eta proiektua aurrera eramango den herrialdearen izena azalduko dira.

2. Diru-laguntza zuritzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua lagunduko den proiektu osoarena izango da. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz aurkeztu beharko da, gastuen zerrenda xehatua eta dagozkion faktura originalak edo kopiak behar bezala legalizatuak (Beasaingo Udalak zigilatu ditzan).

Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeek ez dute fondoan erabilera justifikatzeko fakturarik aurkeztu beharko (Emandako diru-laguntzaren Faktura Bakarraren originalaren aurkezpena egin beharko dute), nazio Batuetako agentzien funtzionamenduari buruz erabakitako berariazko kontabilitate-kontrola nahiko justifikazioa dela ulertzen delako.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

10- *Egiaztatzeko epea.*

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, diru-laguntzaren deialdiko urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

11- *Betebeharrak ez betetzea.*

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

5.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK.

a.- CAF, 6. AREAKO HIRI ANTOLAKETA EGITASMO BEREZIAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA. 2019PEOU0003

Lurralde batzordeko proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- 2020-06-09. Alkatearen Ebazpena (CAF, 6. area) "3.4 acería" buruzko Hiri Antolaketarako Egitasmo Bereziaren aldaketari hasierako onespina emateari buruzkoa, baldintza hauekin:

- Hainbat xehetasun zuzentzea eta zuzenketa horiek jasotzen duen dokumentua aurkeztea.

- Ebazpen horren II. aurrekarian aipatutako hitzarmena behin betiko onartu eta sinatu izana.

2.- Egitasmo Bereziaren aldaketa informazio publikoan jarri zen Gipuzkoako Foru Aldundian (2020-06-16), Berria eta Diario Vasco egunkarietan (2020-06-11) iragarkiak argitaratuz, 20 laneguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegazioak aurkezteko epea, 2020-07-14an amaitu zen.

Epe horretan ez zen inolako alegaziorik egon, baina CAFek 2020-06-30ean eskaeridatzi bat aurkeztu zuen (3.1 azpi lursaila segregatzeko aurreikusteari buruzkoa) eta beste bat 2020-10-08an (3.4 azpi lursailean eraikigarritasuna handitzeari buruzkoa).

3.- Hasierako onespinen ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Azpiegitura Departamentuaren eta Ur Agentziaren beharrezkoak diren txostenak ere eskatu ziren.

Lehenengoa, 2020-06-17an jaso zen eta bigarrena, 2021-01-12an. Biak aldekoak dira baina biak adierazten dute, obrak egikaritzeko zein baldintza bete behar diren.

4.- 2020-07-10. CAF, 6. Areari buruzko hitzarmena sinatzen da Udala, CAF eta CETESTen artean.

5.- 2021-02-09. Idazkaritzako txostena eman da, CAF eskatutako 3.1 azpi lursaila segregazioari buruz. Txostenak ondorengoa dio:

"Aurrekari eta oinarri juridikoak kontuan izanda eta ikusita gutxieneko partzela, hirigintza-antolamendu xehatua zehaztapena dela, ez zait iruditzen eragozpenik dagoenik 3.1 azpipartzela zatitu ahal izateko. Horretarako Hiri Egitasmo Bereziaren aldaketan, "Arau Urbanistikoak" atalean: "Ondorioztatutako 3. lurzatiaren eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza partikularra", "egikaritze baldintzetan" ondorengoa esan beharko luke:

"3.1 azpipartzelaren bereizketa bakarrik baimendu ahal izango da, lurzoruaren titulartasuna eta haren gainean jarduera garatzen duenarena bateratzeko".

Horrela, ulertzen da ondorioztatutako 3. lurzati (R.3) jada ez dela gutxieneko finka zatiezina eta bakarrik adierazitako helburuarekin zatitu daitekeela."

6.- 2021-02-04, CAFek aurkezten du, (CAF, 6. area) "3.4 acería" buruzko Hiri Antolaketarako Egitasmo Bereziaren aldaketarekiko dokumentua zuzenduta, hasierako baldintza-onespenen erabakiaren arabera.

7.- 2021-02-09. Aldeko txosten teknikoaren Egitasmoaren zuzendutako aldaketa-dokumentuari buruzkoa eta CAFek 3.4 azpi lursailean eraikigarritasuna handitzeari buruz egindako eskaera erantzuten duena. Ondorengoa adierazten da:

"Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ikusi da dokumentazio horrek jasotzen dituela hasierako onarpenaren ebazpenean egindako errekerimendu ia gehienak.

Dokumentuak egoki justifikatzen du ezinezkoa dela Plan Bereziko "Bide Sarerako S.O." eta "Bide Sarerako S.L."-ra bideratutako azalera eta 2010ean onartutako Birpartzelazio

Proiektuarenak bat etortzea (memoriaren eranskineko 1. Taulan), bi dokumentuen eremu espaziala desberdina delako (Arena vs. Egikaritze-unitatea).

Bestalde, behar bezala jaso da CAFen 2020/10/08ko idatziaren ondoriozko 3.4 azpipartzelaren eraikigarritasun berria, bai eta CAFen 2020/06/30eko idatziaren ondoriozko "soilik 3.1 azpipartzelaren bereizketa baimentzeko aukera, lurzoruaren titulartasuna eta haren gaineko jarduera garatzen duenarena bateratzeko" ere.

Azkenik, Hirigintzako Arauak 2. dokumentuaren 11. artikuluan ezarritako 3. partzela egikaritzeko baldintzek, Uraren Euskal Agentziaren (URA) eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren txostenetan aurreikusitako obretarako baldintzei aipamen egiten diete.

Horregatik, ulertzen dut behin betiko onar daitekeela HAPBren aldaketa, "3.4 altzairutegia" azpipartzelaren sorrerari buruzkoa."

Horren ondorioz, Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. (CAF, 6. area) "3.4 acería" buruzko Hiri Antolaketarako Egitasmo Bereziaren aldaketari behin betiko onospena ematea

Bigarren. Aipatutako dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Hirugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi aipatutako aldaketa dokumentuan jasota dauden ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros siempre intentamos ser coherentes con nuestro voto. Cuando anteriormente se presentó este Plan Especial, nos posicionamos en contra porque no se mejoraba las infraestructuras del barrio de Lazkaibar y ello puede suponer la desaparición del barrio. Por lo tanto, votamos en contra."

Alkateak udal talde sozialistako ordezkariari esan dio bere ustetan, nahastu egin dela, orain behin betiko onartzea proposatzen den Egitasmo Bereziari hasierako onospena Alkateak eman ziolako bere eskumenekoa izateagatik eta orain dela lehen aldía Egitasmo Berezi hau Plenora ekartzen dena.

Izandako nahastea konpodu da eta ezagutzera eman da, aipatu nahi zena zela CAFekin sinatutako hitzarmena.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) galdetu du ea aldaketa esanguratsua den eta horrela balitz prozedura jarraitu den.

Alkateak esan du teknikoek esaten dutela aldaketak funtsezkoak diren ala ez.

Idazkariak esan du Egitasmo Bereziaren aldaketak tramitazio berdina duela aldaketa, funtsezkoa izan edo ez. Hasierako onospenaren ondoren Egitasmoa jendaurrean jartzen da eta gero plenoari dagokio alegazioak ebatzea eta behin betiko onospena egitea. Hori da kasu honetan ere jarraitu den prozedura.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

6.- BERRI EMATEA:

Ondorengo Ebazpenen berri eman da:

- 2020ko ekitaldi ekonomikoaren likidazioari buruzko Alkatearen Dekretuak.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aipatu nahiko nuke 2020. urtean aurrekontua onartu genuenean zein egoera genuen. Plan ekonomiko finantzarioaren menpe geunden. Gogoratu behar da 2018an GOIEKI Beasaingo udalera atxiki zuela Estatuko Administrazioak, pabiloia egiteko gastuak zirela eta gastu arau erregela hausteagatik, plan ekonomiko finantzario hori egin izan behar genuen. 2020an onartu zen aurrekontua, 2019ko likidazioaren arabera plana betez onartu zen. 2020ko azaroaren 10ean, Dekretu batek onartu zuen ez ohiko izaerak egonkortzeko muga 2020ko eta 2021erako eteten zuela. Exekuzioari dagokionez esan, 2020ko hasierako aurrekontua, 16.686.000,00 €koa izan zen. Egindako kreditu aldaketa aipagarrienetan, kreditu hazkuntzetan gizarte larrialdietarako kreditua, kreditu txertaketan, hau da, 2019an aurreikusitako eta exekutatu gabekoak milioi bat inguruko kreditu txertaketa eta kreditu gehigarri moduan, 5 milioi berrehun ingurukoak egin izan ditugu. Horietatik maileguaren amortizazioan 1.800.000,00 €, COVIDek eragindako gehikuntzetan, 600.000,00 € (musukoak, janariak erosteko inbertsioak, merkataritzarako babes elementuak, bonoak, zergetarako laguntza, kontratuak eteteagatiko kalteordainak, kontziliaziorako laguntzak). Horri gehitu behar zaio GOIEKiko kapital hazkuntzarako 300.000,00 inguruko kreditu gehikuntza. Hori horrela lehen aipatutako 5 milioiko kreditu gehikuntzetatik, ez ohiko kontzeptuegatik, 2 milioi inguru eta gainerako kreditu gehigarrien artean, Dolarea parkea, Igartza Oletako boladizoa, irisgarritasuna bermatzeko igogailua eta saski baloiko kantxa, hain zuzen ere gauzatuta edo gauzatzear ditugun obrak. Gastuen gauzatze maila, %71 eta sarrerren gauzatze maila, %72a. Hori horrela saldoa 6.000.000,00 €takoa da eta gastu orokorretarako gerakina, 15.000.000,00koa."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Gure ustez gehiegi erabiltzen dira kreditu gehigarriak eta ez zaigu iruditzen udalaren funtzionamendu horrelakoa izan beharko lukeenik. Gerakina asko erabiltzen da. Gerakina ona izan liteke, baina entitate publikoa batek ez luke horrelako gerakinik izan behar. Udala honek horrelako gerakina izateko arrazoi asko daude, hala nola, azpikontratazioa, enplegu publiko murrizta, etab. Horrek kudeaketa eredu bat islatzen du, zilegi dena baina guk konpartitzen ez duguna. Iruditzen zaigu diagnostiko bat egin beharko litzatekeela eta beharra dagoen tokietan dirua erabili eta ea hurrengo urteetarako hainbeste inprobizazio izaten ez den."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aipatu dut, kreditu aldaketa horietatik 2.000.000,00 erabili direla ez ohiko beharrei erantzuteko. Gerakina izateak askotan ahalbideratzen digu, horrelako kasuak estaltzeko aukera izatea. Ez bakarrik momentuko erantzun azkarra. Pentsatu behar dugu, gerakina hori ez bagenu hainbat ezbehar ezin izan genituela ase eta horrezaz gain Beasainen etorkizunerako gerakin horrek lagunduko digu. Zuhurtziaz jokatuta hobe gerakina eduki, inbertsioetan sartu ahal izateko."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Gerakina herramienta bat izan daiteke, baina badaude udalak horrelako gerakina izan gabe ere funtzionatzen

duitenak. Ez zaigu iruditzen kudeaketa ona denik. Eredu bat izan daiteke, baina ez egokia.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Eredu bakarra ez da eta da guk eramaten duguna eta saiatuko gara ahalik eta modu hobereanean eramaten. Azken urteetan muga bat izan dugu eta gerakina erabili dugu inbertsioak finantzatzeko, beste modurik ez genuelako”

Ondorengo Ebazpenen berri eman da:

- 2020ko abenduaren 17tik 2021eko urtarrilaren 24arte emandako Ebazpenak.
- 2020ko abenduaren 17tik 2021eko urtarrilaren 24arte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.
- 2021eko urtarrilaren 25etik 2021eko otsailaren 21erarte emandako Ebazpenak.
- 2021eko urtarrilaren 25etik 2021eko otsailaren 21erarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

EDUKINONTZIAK EZINDUENTZAKO

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Queremos solicitar que desde el departamento de servicios se inste a la Mancomunidad de Sasieta para que con la información que puedan facilitar los servicios sociales, se coloquen contenedores adaptados en zonas prioritarias. Con ello mejoraría la calidad de las personas que tienen movilidad reducida. Además el Ayuntamiento debería trabajar en pro de una mejora de la accesibilidad universal.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Horren inguruan esan, Beasainen froga modura Sasietak organikorako jarri duela edukinontzi bat pedalarekin ezinduei zuzenduta. Eskaera konkretuak badaude ezinduen autonomia sustatzeko, Sasietak eskaerari erantzuna ematen dio. Beasainen ez ditugu, baina Zumarragan adibidez, jarrita daude. Helburua da edukinontziak prest egotea ezinduentzako, baina inbertsio handia izango litzatekeelako denak aldatzea, egiten dena da eskaera zehatzei erantzun. Norbait ezagutzen baduzue behar duena, egin eskaera eta puntu konkretu batean jarriko litzateke.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En principio nuestra solicitud iba dirigida a que con la información que se pueda obtener desde el departamento de bienestar social, se puedan poner en las zonas prioritarias, pero tomamos nota.”

SENPEREKO BIRIBULGUNEA

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Esta semana ha salido publicado un proyecto del Departamento de Infraestructuras de Diputación, que afecta a nuestro municipio: se trata de la construcción de un rotonda en Ugartemendi. Quisiéramos saber en qué va a afectar a los vecinos de la zona.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Hobekuntza bat da, puntu horretan zebra bidearekin nahiko komeri izaten ditugulako. Hor hondoko etxeko jabeari metro batzuk desjabetuko litzaioke. Berarekin harremanetan daude. Orain proiektu hori jendaurrean dago. Esan digutena da ez dela trafikorik moztuko obra egiterakoan. Lehendabizi egingo dute erdia eta gero beste erdia. Afekzioari dagokionez, obra guztiek ondorioztatzen dituzten eragozpenak izango lituzkete bertako bizilagunek, baina horrezaz gain obra horrek onura ekarriko luke herrirako."

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "En principio en el documento se indica que son los vecinos los afectados."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "El proyecto está a exposición pública para hacer las alegaciones que se estimen pertinentes."

BIDEGORRI BEASAIN-ORMAIZTEGI

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Según parece estos días ha habido conflictos por parte de los vecinos por el uso del bidegorri que va de Beasain a Ormaiztegi y una de las quejas es la velocidad de los ciclistas y el uso de patinetes que afectan a los peatones. Ante la duda que han tenido sobre el uso de esta vía, según hemos sabido, se han puesto en contacto con la policía municipal, quien ha dicho que es para uso exclusivo para ciclistas. No contentos con esta respuesta, también se han puesto en contacto con la Ertzaintza y la respuesta ha sido el uso no es exclusivo para ciclistas. Quisiéramos saber si tenéis alguna información al respecto."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "No somos concededores de que haya habido una queja en este sentido. Kontsultatuko dugu."

HERRITARREN PARTEHARTZEA

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Ea urtebete pasatu da pandemia hasi zenetik eta horrekin gure eskubideak murriztu egin dira. Iruditzen zaigu ba dela garai Osoko Bilkura hauetan herritarren partehartzea ahalbidetzeko sistemaren bat ezartzea. Presentzialki jarraitzeko dauden mugak ezagututa, agian telematikoki edo streaming bitartez izan daiteke. Ez dakit honetaz zerbait pentsatu den."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Ezer ez dugu pentsatu horretaz, egia esan horrelako zehaztasunak araudi organikoan jaso beharko lirateke."

Alkateak galdetuta, Idazkariak esan du araudi organikoa onartu bitartean Osoko Bilkurak bideo-akta bitartez jaso beharko liratekeela, gardentasunari begira.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aztertuko da. Orain arteko eskarmentua kontuan izanda, esan daiteke, jendearen partehartzea oso murrizta dela. Etorri direnei bide eman zaie parte hartzeko."

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.